



FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresaren helburua botila ekologikoak unibertsitateetan saltzea denez, hurrengo bost elkarte hauek izango lirateke enpresa aurrera eramateko behar izango genituzkeenak:

- **Makina hornitzaileak:** Hainbat makina erosiko ditugu, ondoren, unibertsitateetan jartzeko. Makina hauek teknologikoki aurreratuak izango dira ahalik eta energia gutxien kontsumitzeko. Gainera barruan hautsak izango dituzte eta kanpoaldean ukipen bidezko pantaila bat izango dute bezeroek bertatik nahi duten freskagarria aukeratzeko.
- **Freskagarriak hautsean hornitzen duen enpresa:** Enpresarekin ipiniko gara kontaktuan hautsak lortzeko. Hauts hauek hainbat zaporekoak izango dira (cola, laranja, limon, edari isotonikoa...). Eta kantitate handiak erosiko ditugunez, prezio lehiakorrean lortu ahal izango ditugu. Bestalde hauek ez dute inolako azukre gehigarririk izango eta osagai naturalekin eginda egongo da.
- **Botila hornitzaileak:** Plastikozko botila hauek berrerabilgarriak eta %100 material birziklatuz eginda egongo dira. Bestalde, esterilizatu ahal izango dira behin baino gehiagotan erabili ahal izateko. Gainera pertsonalizatu ahalko dira bezero bakoitzak bere gustuko botila izateko.
- **Unibertsitatea:** Hau oso garrantzitsua izango da. Makinak bertan jartzeko eta hauei hautsak birjartzeko baimena eman beharko digulako.
- **Finantza erakundea:** Hasierako inbertsioetarako beharko ditugun diru funtsak emateko gai den banku edo inbertsioetan aritzen den erakundeen laguntza beharko dugu.

